

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEKIN PAREKATZEKO, GIZARTE-SEGURANTZAREN PENTSIODUNEI ETA EZINTASUN IRAUNKORRA DELA-ETA PENSIOEN TITULARRAK DIREN KLASE PASIBOEI ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOEN NEURRIAK APLIKATZEARI BURUZ LANBIDEK EMANDAKO JAKINARAZPENA: ESKABIDEAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK.

Baliaezintasuna duten pertsonak enpleguko zentro berezietan laneratzea sustatzeko laguntza eta dirulaguntza publikoen oinarri arautzaileak ezartzen dituen 1998ko urriaren 16ko Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren Aginduan aurreikusitako laguntzak 2019an finantzatzeko dirulaguntzen deialdia dela-eta, 2018ko azaroaren 29an, Auzitegi Goreneko Laugarren Aretoak hiru epai eman zituen (992, 993 eta 994 zenbakidunak), dotrina batzeko errekurtsioak ebatziz, eta haien bidez *ultra vires* deklaratu zuen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.2. artikulua.

Artikulu horren bidez, Gizarte Segurantzaren pentsiodunak ere desgaitasuna duten pertsonatzat jotzen ditu, baldin eta ezintasun iraunkorra dela-eta pentsio bat jasotzen badute (osoa, absolutua edo baliaezintasun handikoa), baita klase pasiboko pentsiodunak ere, baldin eta erretiro- pentsioa badute zerbitzurako ezintasun iraunkorra edo gaitasunik eza direla-eta. Bada, Auzitegi Gorenak gehiegizkotzat jo du ordezkari hori. Izan ere, Estatuko Abokatzaren 2019ko maiatzaren 7an gai horri dagokionez emandako txostenaren arabera, Auzitegi Gorenak ezarritako dotrina bete behar da, goi-mailako auzitegiak interpretatzen duen bezalaxe, eta ez dira berez desgaitasuna duten pertsonatzat jo behar Gizarte Segurantzaren pentsiodunak eta ezintasun iraunkorra dela-eta baliaezintasuneko pentsioen titularrak direnak.

Dotrina hori betetze aldera, enplegua sustatzeko eta enpleguko politika aktiboak aplikatzeko neurrien ondorioetarako, Gizarte Segurantzaren pentsiodunek % 33ko baliaezintasun-maila edo handiagoa aitortzeko ziurtagiria aurkeztu behar dute, laguntzak jaso nahi badute (ezintasun iraunkorra, osoa, absolutua edo ezintasun handia, edo klase pasiboen pentsioa badute, jubilazio- edo erretiro-pentsioarekin zerbitzurako ezintasun iraunkorra edo gaitasunik eza izateagatik).

Auzitegi Gorenaren epaietan ezarritakoaren arabera behar den informazioa izateko, Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak 2019ko ekainaren 27ko jakinarazpenean adierazi bezalaxe, beste eranskin bat gehitu zaió (D eranskina) zentroek A, B eta C eranskinekin batera aurkeztu beharreko eskabideari, jarraibide hauen arabera:

- 1.- A, B eta C eranskinetan sartu behar da, orain arte bezala, % 33ko ezintasuna edo handiagoa duen langileen zerrenda osoa (hil bakoitzeko nominari dagokiona).
- 2.- D eranskinean, uztaileko eskabidea egiten denetik bete beharrekoa, pentsiodunak baino ez dira sartuko:

- a) Uztailari dagokion eskabidean, D eranskinean 2018ko azaroaren 29tik eta 2019ko uztailaren 31a arte alta emandako pentsiodun guztiak jasoko dira.
- b) Abuztuko eta hurrengo hilabeteetako eskabideetan, D eranskinean dagokion hileko lehenengo egunetik eta azken egunera bitartean enpresan alta edo baja emandako edo ezintasun-aitorpena aldatu zaien pentsiodun guztiak.

D eranskineko eremuek (altak eta bajak) A, B eta C eranskinen ohiko eremuak jasotzen dituzte (izen-abizenak, NAN, kontratua eta kontratu-mota, kontratuaren hasiera eta amaiera-data), gehi ezintasun-motari eta mailari buruzko datuak jasotzen dituztenak (baliaezintasunaren aitortpena, Balorazio eta Ebaluazio zerbitzuen ebaluazioarekin, baliaezintasunaren aitormena ebaluaziorik gabe eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena).

Vitoria-Gasteizen , 2019ko uztailaren 9an.

Lan Aktibazioko Zuzendaritza
Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzua

Oharra: Eskadidea egiteko inprimaki berria, eta berari atsikita doan D eranskina, abustutik aurrera eskuragarri egongo da Lanbideko web orrialdean.